



ETXARRI ARANAZKO FERIETAKO ARTISAU ETA EKOIZLEEN AZOKA 2022
Urriaren 2an, igandea, 10:00-15:00

Ekoizle eta artisau azokan parte hartzeko izen-emate epea, abuztuaren 19a arte egongo da zabalik. Epez kanpo jasotako eskaerarik ez da onartuko. Azoka Urriaren 2an izango da. abuztuaren 24an, aukeratukoei bakarrik, ferian parte hartuko dutela jakinaraziko zaie.

Parte hartzeko orduan ondorengo IRIZPIDEAK baloratuko ditugu:

- Egindako lanaren kalitatea.
- Etxarri Aranazko edo Sakanako herritarra izateak lehentasuna izango du.
- Artisau ziurtagiria edo autonomoetan altan egotea.
- Lan, produktu, ezberdinak eta originalak lantzea azokaren aniztasuna bermatzeko.
- Azokan bertan norbere lanaren erakustaldia egitea, hau da lanean jarduteko aukera izatea azokak irauten duenean edota lana burutzeko egiten den prozesua ikusi ahal izatea.
- Sortzailea eta ekoizlea postuan egotea.

Aurkeztu beharreko DOKUMENTAZIOA:

- NAN-aren fotokopia
- Kontakturako telefono zenbakia edota e-posta
- Artisau ziurtagiria edo autonomoetan altan egotearen ziurtagiria.
- Norbere lanaren deskripzioa.
- Norbere lanari buruzko azalpena. Lana hobeto ulertu ahal izateko edozein informazio gehigarri kontuan hartuko da (argazkiak, blogak, webguneak ...).
- Postua jartzeko beharrezko neurria metrotan.

Proposamenak aurkeztu:

Proposamen guztiak Etxarri Aranazko Udalean jasoko dira e-posta, bidez: azoka@etxarriaranatz.eus

ETXARRI ARANAZKO UDALA
Kale Nagusia, 10
31.820 Etxarri Aranatz (Nafarroa)
Telefonoak: 948460004 / 948 460930 / 606239008
E-posta: azoka@etxarriaranatz.eus
Orduategia: Astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00

Norberak bere postua hornitzeko behar duen materiala ekarri beharko du.
Euriagatik sortutako kalteez ez da arduratuko Etxarri Aranazko Udala.